# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### ZK-5361

DEKRETUA, 423/1999ko azaroaren 30ekoa, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

LOGSEren arabera, Batxilergoak hezkuntzan hiru helburu bete behar ditu: prestakuntza orokorra eman behar du, ikasleak orientatu egin behar ditu eta ikasleak goi-mailako ikasketak egiteko prestatu behar ditu. Helburu horiek EAEn ditugun lau Batxilergo-motetan ziurtatuta daude.

Hezkuntzaren etapa honek ikasleen prestakuntza orokorra bermatu behar du eta ikasleei adimen eta giza heldutasuna eman behar die, ondorengo ikasketak egiten jarraitu edo lanean hasteko modua izan dezaten.

Batxilergoaren helburu propedeutikoa kontuan hartuz, beharrezkoa zen aniztasuna bultzatzen zuten modalitateko eta aukerako jakintzagaiak antolatzea, prestakuntza-ibilbide desberdinak eratzeko aukera egon zedin. Batxilergoaren batasun-printzipioaren eta aniztasun-printzipioaren arteko oreka lortzen zuen hezkuntza-etapa bat eratu nahi zen. Batasuna lortzeko, modalitate guztientzat diren hezkuntza-helburuak eta hainbat jakintzagai ezarri ziren; aniztasuna bermatzeko, berriz, modalitate desberdinak eta aukerako jakintzagaiak eskaintzen dira.

Oreka hauskor horri eusteko, guztiontzako jakintzak indartzea komeni da, bai eta hautatzeko aukerak ez direla inolaz mugatuko ziurtatzea ere. Izan ere, hautatzeko posibilitateak espezializazioan sakontzeko edo lehenengo ikasturtean egindako aukera aldatzeko bide izan behar du. Era berean, hezkuntza-ibilbide inkoherenteak baztertu egin behar dira, ikasleak ondoren zein unibertsitate-ikasketa, goi-mailako prestakuntza-ziklo edo arte-ikasketa egingo dituen hautatzeko duen aukerarentzat kaltegarriak baitira. Horrez gain, oraingo baldintzetan ikaslearen eskola-errendimenduan eragin negatiboa izan dezakeen ordu-kopuru handia txikitzea ere komeni da.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuan, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituenean, aldaketa batzuk egitea.

Horren indarrez, Euskadiko Eskola Kontseilua entzun ondoren eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-5361

DECRETO 423/1999, de 30 de noviembre, de segunda modificación del Decreto por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación.

La triple finalidad educativa que debe cumplir el Bachillerato según la LOGSE, de formación general, de orientación de los alumnos y de preparación de los mismos para estudios superiores, está asegurada en las cuatro modalidades de Bachillerato existentes en la CAPV.

Esta etapa educativa debe garantizar la formación general de los alumnos y proporcionarles una madurez intelectual y humana que les permita seguir estudios posteriores o incorporarse a la vida activa.

La finalidad propedéutica del Bachillerato exigía una organización de materias de modalidad y optativas que favoreciese la diversidad, permitiendo configurar diferentes itinerarios formativos. Se pretendía configurar una etapa educativa en la que se manifestase un equilibrio entre el principio de unidad del Bachillerato, al que contribuyen unos objetivos educativos y unas materias comunes a todas las modalidades, y el principio de diversidad concretado en las diferentes modalidades y materias optativas.

Para mantener este difícil equilibrio, se ha demostrado conveniente reforzar los saberes comunes y garantizar que las posibilidades de opción en ningún caso queden limitadas, sino que permitan profundizar en la especialización o asegurar la reversibilidad de la opción tomada en el primer curso, al mismo tiempo que se evitan itinerarios educativos incoherentes que perjudican la capacidad de elección por el alumno de sus posteriores estudios universitarios, ciclos formativos de grado superior o enseñanzas artísticas, y asimismo aminorar una carga horaria que, en las actuales condiciones puede interferir negativamente en los rendimientos académicos del alumno.

Para conseguir este objetivo son necesarias algunas modificaciones en el Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos, y se dispone su implantación.

En su virtud, oído el Consejo Escolar de Euskadi y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Educación,

Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraipideak arautzen dituen apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuko 10. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak aldatu eta gero, honela geratu dira idatzita:

«1.– Ikastetxe guztiek hautazko jakintzagaien behar adinako eskaintza egingo dute, aurreikusitako prestakuntza-ibilbideen arabera.

2.– Ikasleek jakintzagai bat hautatu behar dute gutxienez lehenengo mailan eta beste jakintzagai bat bigarrenean, ikastetxeak eskaintzen dituen aukerako jakintzagaien artetik, hartuta ez dituen bere modalitateko jakintzagaien artetik eta ikastetxean ematen diren beste modalitateetako jakintzagaien artetik.»

*Bigarren artikulua.–* Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuko 14.2 g) artikulua bertan behera uzten da.

*Hirugarren artikulua.–* Batxilergoko modalitate guztien ordu-banaketa jasotzen duen apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuko Eranskina dekretu honen Eranskinarekin ordezkatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1999/00 ikasturtean, Batxilergoko bigarren mailako «Gorputz Hezkuntzako» curriculuma uztailaren 22ko 180/1977 Dekretuan (abuztuaren 29ko EHAA) azaltzen den «Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna» izeneko irakasgaiaren curriculumari egokituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari dekretu hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko azaroaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Universidades e Investigación, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de noviembre de 1999,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Se da nueva redacción a los párrafos 1 y 2 del artículo 10 del Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación, que quedan redactados como sigue:

«1.– Todos los Centros realizarán una oferta suficiente de materias optativas en función de los itinerarios formativos previstos.

2.– Los alumnos deberán elegir al menos una materia en primero y otra materia en segundo entre la oferta de optativas que haga el centro, las materias de su modalidad que no curse como tales y las materias de otras modalidades que imparta el centro.»

*Artículo segundo.–* Se deroga el artículo 14.2 g) del Decreto 97/1997, de 29 de abril.

*Artículo tercero.–* El Anexo del Decreto 97/1997, de 29 de abril con la distribución horaria de las diferentes modalidades de Bachillerato se sustituye por el Anexo a este Decreto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante el curso 1999/00, el curriculum de la materia «Educación Física» de 2.º curso de Bachillerato, se adaptará al curriculum de la materia «Actividad Física, Ocio y Salud» que figura en el Decreto 180/1997, de 22 de julio (BOPV de 29 de agosto).

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ERANSKINA

Batxilergoaren modalitateak:

NATUR ETA OSASUN-ZIENTZIEN BATXILERGOA

| 1. MAILA | | 2. MAILA | |
|---|---|---|---|
| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| . Gaztelania eta Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskara eta Literatura | 3 | . Gaztelania eta Literatura | 3 |
| . Atzerriko Hizkuntza | 3 | . Euskara eta Literatura | 3 |
| . Filosofia | 4 | . Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| . Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | . Gorputz Hezkuntza | 2 |
| Guztira | 15 | Guztira | 15 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| . Matematika I | | . Kimika (*) | |
| . Fisika eta Kimika | | . Biologia (*) | |
| . Biologia eta Geologia | | . Fisika (*) | |
| . Marrazketa Teknikoa | | . Matematika II (*) | |
| . Lur eta ingurugiro-zientziak | | . 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIKO OROKORRA | 31 | GUZTIKO OROKORRA | 31 |

GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIEN BATXILERGOA

| 1. MAILA | | 2. MAILA | |
|---|---|---|---|
| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| . Gaztelania eta Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskara eta Literatura | 3 | . Gaztelania eta Literatura | 3 |
| . Atzerriko Hizkuntza | 3 | . Euskara eta Literatura | 3 |
| . Filosofia | 4 | . Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| . Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | . Gorputz Hezkuntza | 2 |
| Guztira | 15 | Guztira | 15 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| . Gizarte-Zientziei aplikatutako Matematika I | | . Geografia | |
| . Historia Garaikidea | | . Grekera | |
| . Latina I | | . Latina II (*) | |
| . Artearen Historia | | . Gizarte-Zientziei aplikatutako Matematika II (*) | |
| . Ekonomia | | . Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa (*) | |
| | | . Filosofiaren Historia | |
| | | . 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIKO OROKORRA | 31 | GUZTIKO OROKORRA | 31 |

TEKNOLOGI BATXILERGOA

| 1. MAILA | 2. MAILA |
|---|---|

| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| . Gaztelania eta Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskara eta Literatura | 3 | . Gaztelania eta Literatura | 3 |
| . Atzerriko Hizkuntza | 3 | . Euskara eta Literatura | 3 |
| . Filosofia | 4 | . Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| . Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | . Gorputz Hezkuntza | 2 |
| Guztira | 15 | Guztira | 15 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| . Industri Teknologia 1 | | . Industri Teknologia II (*) | |
| . Matematika 1 | | . Matematika II (*) | |
| . Fisika eta Kimika | | . Fisika (*) | |
| . Marrazketa Teknikoa | | . Elektroteknia (*) | |
| | | . Mekanika (*) | |
| | | . 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIKO OROKORRA | 31 | GUZTIKO OROKORRA | 31 |

ARTE BATXILERGOA

| 1. MAILA | | 2. MAILA | |
|---|---|---|---|
| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| . Gaztelania eta Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskara eta Literatura | 3 | . Gaztelania eta Literatura | 3 |
| . Atzerriko Hizkuntza | 3 | . Euskara eta Literatura | 3 |
| . Filosofia | 4 | . Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| . Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | . Gorputz Hezkuntza | 2 |
| Guztira | 15 | Guztira | 15 |
| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| . Arte Marrazketa I | | . Arte Marrazketa II (*) | |
| . Marrazketa Teknikoa | | . Irudia | |
| . Bolumena | | . Diseinuaren Oinarriak | |
| . Adierazpen Grafiko eta | | . 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| . Plastikoaren Teknikak | | Artearen Historia | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |
| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIKO OROKORRA | 31 | GUZTIKO OROKORRA | 31 |

*ANEXO*

*Modalidades de Bachillerato:*

*BACHILLERATO DE CIENCIAS DE LA NATURALEZA Y DE LA SALUD*

| *CURSO PRIMERO* | | *CURSO SEGUNDO* | |
|---|---|---|---|
| *MATERIAS COMUNES* | *Horas* | *MATERIAS COMUNES* | *Horas* |
| *. Lengua Castellana y Literatura* | *3* | *. Historia* | *4* |
| *. Euskera y Literatura* | *3* | *. Lengua Castellana y Literatura* | *3* |
| *. Lengua Extranjera* | *3* | *. Euskera y Literatura* | *3* |
| *. Filosofía* | *4* | *. Lengua Extranjera* | *3* |
| *. Religión/alternativa (a elegir)* | *2* | *. Educación Física* | *2* |
| *Total* | *15* | *Total* | *15* |
| *MATERIAS MODALIDAD* | *Horas* | *MATERIAS MODALIDAD* | *Horas* |
| *. Matemáticas I* | | *. Química (*)* | |
| *. Física y Química* | | *. Biología (*)* | |
| *. Biología y Geología* | | *. Física (*)* | |
| *. Dibujo Técnico* | | *. Matemáticas II (*)* | |
| *. C. de la Tierra y Medio Ambiente* | | *. Las no elegidas en el curso I* | |
| *3 materias de 4 horas* | *12* | *3 materias de 4 horas* | *12* |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 | 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 31 | TOTAL GENERAL | 31 |

*BACHILLERATO DE HUMANIDADES Y CIENCIAS SOCIALES*

| CURSO PRIMERO | | CURSO SEGUNDO | |
|---|---|---|---|
| MATERIAS COMUNES | Horas | MATERIAS COMUNES | Horas |
| . Lengua Castellana y Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskera y Literatura | 3 | . Lengua Castellana y Literatura | 3 |
| . Lengua Extranjera | 3 | . Euskera y Literatura | 3 |
| . Filosofía | 4 | . Lengua Extranjera | 3 |
| . Religión (alternativa a elegir) | 2 | . Educación Física | 2 |
| Total | 15 | Toral | 15 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas | MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|---|---|
| . Matemáticas CC. Sociales I | | . Geografía | |
| . Historia del Mundo contemp. | | . Griego | |
| . Latín I | | . Latín II (*) | |
| . Historia del Arte | | . Matemáticas CC.SS.II (*) | |
| . Economía | | . Economía y Organización de Empresas (*) | |
| | | . Historia de la Filosofía | |
| | | . Las no elegidas en el curso 1 | |
| 3 materias de 4 horas | 12 | 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 | 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 31 | TOTAL GENERAL | 31 |

*BACHILLERATO DE TECNOLOGÍA*

| CURSO PRIMERO | | CURSO SEGUNDO | |
|---|---|---|---|
| MATERIAS COMUNES | Horas | MATERIAS COMUNES | Horas |
| . Lengua Castellana y Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskera y Literatura | 3 | . Lengua Castellana y Literatura | 3 |
| . Lengua Extranjera | 3 | . Euskera y Literatura | 3 |
| . Filosofía | 4 | . Lengua Extranjera | 3 |
| . Religión/alternativa (a elegir) | 2 | . Educación Física | 2 |
| Total | 15 | Total | 15 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas | MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|---|---|
| . Tecnología Industrial I | | . Tecnología Industrial II (*) | |
| . Matemáticas I | | . Matemáticas II (*) | |
| . Física y Química | | . Física (*) | |
| . Dibujo Técnico | | . Electrotecnia (*) | |
| | | . Mecánica (*) | |
| | | . Las no elegidas en el curso 1 | |
| 3 materias de 4 horas | 12 | 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 | 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 31 | TOTAL GENERAL | 31 |

BACHILLERATO DE ARTES

| CURSO PRIMERO | | CURSO SEGUNDO | |
|---|---|---|---|
| MATERIAS COMUNES | Horas | MATERIAS COMUNES | Horas |
| . Lengua Castellana y Literatura | 3 | . Historia | 4 |
| . Euskera y Literatura | 3 | . Lengua Castellana y Literatura | 3 |
| . Lengua Extranjera | 3 | . Euskera y Literatura | 3 |
| . Filosofía | 4 | . Lengua Extranjera | 3 |
| . Religión/alternativa (a elegir) | 2 | . Educación Física | 2 |
| Total | 15 | Guztira | 15 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas | MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|---|---|
| . Dibujo Artístico I | | . Dibujo Artístico II (*) | |
| . Dibujo Técnico | | . Imagen | |
| . Volumen | | . Fundamentos de Diseño | |
| . Técnicas de Expresión Gráfico | | . Las no elegidas en el curso 1 | |
| . Plástica | | . Historia del Arte | |
| 3 materias de 4 horas | 12 | 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 | 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 31 | TOTAL GENERAL | 31 |